

# Bertsolaritzaren eragina Lapurdikoko bertso-eskoletako gazteen identitatean eta hizkuntza erabileran

Bertso-eskola Jarduera Komunitate gisa  
aztertze proposamena

HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sarien VII. Edizioko  
LEHEN SARIA (2014)

**Miren Artetxe Sarasola**

*Doktoregai Euskal Herriko Unibertsitatean,  
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean*  
miren.artetxe@ehu.es

Sarrera-data: 2014-10-31 / Onartze-data: 2014-11-28

**Laburpena:** Euskararen ezagutzatik erabilerarako tartea kezka iturri dugun honetan, gero eta nabariagoa da gazteen hizkuntza portaeretan eragiteko hobeto ulertu behar ditugula hizkuntza portaerak berak dituen inplikazioak, bestek beste, gazteen beraien identitatearen eraikuntzari dagokionez. Lan honetan, Baionako Bernat Etxepare lizeoko bertso-eskolako kideen diskurtsoak aztertu ditut, identitatearen eraikuntzan eta hizkuntza portaeran bertso-eskolak berak izan dezakeen eragina aztertze. Bertso-eskola Jarduera Komunitate gisa aztertze apustu teorikoa egin dut, hizkuntzari loturiko elementuak zein hizkuntzaz gaindikoak aintzat hartuz, gazteen hizkuntza portaerak aztertze zenbait gako aurkitze asmoz. • *Gako-hitzak:* *Jarduera komunitatea, hizkuntza portaera, identitatea, bertsolaritza.*

**Abstract:** At a time when the gap between the knowledge of Basque and using it is a source of concern, it is becoming increasingly clear that in order to influence the language behaviour of youngsters, we need to better understand the implications of that language behaviour with respect to building the identity of the youngsters themselves, among other things. In this paper I analyse the discourses of members of the verse-making school of the Bernat Etxepare lycée in Bayonne in order to analyse the influence that the verse-making school itself may have on identity building and language behaviour. I make a theoretical attempt to analyse the verse-making school as a Community of Action by looking at the elements linked to the language as well as supralinguistic ones. The aim is to find some keys for analysing the language behaviour of youngsters, taking into consideration elements linked to the language as well supralinguistic ones. • *Key Words:* *Community of action, language behaviour, identity, extempore Basque verse-making.*

## 1. SARRERA

### I

Euskararen berreskurapen prozesuan aurrerapen esanguratsuak egin dira gazteen euskararen ezagutzaren gorakadari dagokionez, baina, badirudi ezagutza horretatik erabilerarako jauzian ez dugula erabat asmatzen. Hiztun belaunaldi berriei buruzko azterketek honako hau utzi digute agerian: ezagutzatik erabilerarako tarte hori gainditu nahi bada, hiztun eleaniztunen hizkuntza portaeretan eragiten duten faktoreetan sakonki arakatu beharra dagoela. Izan ere, beharbada ez dugu bere saktotasunean ulertzen gazte eleaniztun horientzat hizkuntza hautatuak suposatzen duen erronka, bereziki haien identitate hautuei begira.

Lan xume honetan Lapurdiko euskarazko lizeo bakarreko (Baionako Bernat Etxepare lizeoko) bertso-eskolako (hemendik aitzina BEko) gazteen diskurtsoak aztertu nahi izan ditut, identitatearen eraikuntzan eta hizkuntza portaeran, BE bezalako gune batek izan dezakeen eragina aztertzeko. Horretarako, BE jarduera komunitate (hemendik aitzina JK) gisa aztertzeko apustu teorikoa egin dut.

BEko ikasleen egungo hizkuntza portaera, eta bertsolaritzaren transmisioak, portaera horietan izan duen eta duen eragina aztertu nahi izan ditut, eta horretarako ezinbestekoa izan zait gazte horien bizipenak, sentipenak eta pentsamendua ezagutzea. Hala, teknika kualitatiboak erabili ditut, nagusiki, sakoneko sei elkarrizketa<sup>1</sup>. Elkarrizketatuak hautatzeko honako irizpideak erabili ditut:

- Adina: 15-18 urte bitartekoak izatea
- Generoa: 3 neska gisa sozializatuak eta 3 mutil gisa sozializatuak
- Betidanik Seaskan ikasi izana (hots, euskarazko murgiltze sisteman)
- Betidanik Lapurdin ikasi izana
- Aitortutako hizkuntza gaitasun erlatibo altua izatea<sup>2</sup> (hots, euskaraz frantsesez baino hobeto ari direla adieraztea)

Irizpide hauek betetzen badituzte ere, zehaztu behar dut askotariko bertso eta hizkuntz ibilbideak dituzten gazteak dira.

## 2. JARDUERA KOMUNITATEAK

### I

Lave eta Wengerek (1991) erabili zuten lehen aldiz JK kontzeptua, eta hamar kada bat geroago berrartu zuten Eckert eta McConnell-Ginetek hizkuntzei buruzko ikerketarako (Estatu Batuetako *High School* ikasleen hizkuntza erabilera aztertzeko, hain zuzen) (Eckert 2001; Eckert & Mc-

---

**Hiztun  
belaunaldi  
berriei buruzko  
azterketek  
honako hau utzi  
digute agerian:  
ezagutzatik  
erabilerarako  
tarte hori  
gainditu nahi  
bada, hiztun  
eleaniztunen  
hizkuntza  
portaeretan  
eragiten duten  
faktoreetan  
sakonki arakatu  
beharra dagoela.**

**Aldaketa horiek giza-talde konkretuetan, denboran eta espazioan kokatzen diren jardueratan gertatzen dira. Hots, entitate abstraktu baten ordeztalde sozial jakin batzuei lotutako espazio komunak dira aztergai. Ikuspegi honek talka egin lezake Hizkuntza Komunitatearen (hemendik aitzina HK) kontzeptuaren inguruan sortutako teoriekin.**

Connell-Ginet 1992; Eckert & McConnell-Ginet 1995). JKak oinarri hartuz, identitatea gizaki arteko elkarrekintzen bidez garatzen den elementu gisa ikertzen da. Ikuspegi honen arabera, jardueren jiran sortzen dira taldearenak diren zenbait identitate ezaugarri, norbanakoengan gorpuzten direnak.

Aldaketa horiek giza-talde konkretuetan, denboran eta espazioan kokatzen diren jardueratan gertatzen dira. Hots, entitate abstraktu baten ordeztalde sozial jakin batzuei lotutako espazio komunak dira aztergai. Ikuspegi honek talka egin lezake Hizkuntza Komunitatearen (hemendik aitzina HK) kontzeptuaren inguruan sortutako teoriekin. Azterketarako tresna ezberdinak dira, eta tresna guztiak bezala, lan jakin batzuetarako izango dira onak, ez hain onak beste batzuetarako. Noiz zein erabili, hor dago gakoa.

As a construct, it [JK kontzeptua] can be used alongside other models such as speech community (e.g. Walters 1996) or it can be used as an alternative. In either case, it offers a different lens through which to view patterns of linguistic variation and the ways in which individuals construct and maintain their identities (Davies 2005).

Kontzeptu honek HKren kontzeptuarekiko hiru aldaketa nagusi proposatzen ditu (Davies 2005)<sup>3</sup>: JKko kidez jarduera sozialen bidez sortzen eta mantentzen da (komunitatearekiko kidez ez da “berez emana”), JKren kontzeptua erabiltzeak identitatea modu performatiboan ulertzea dakar (aintzat hartuz norbanakoak izan ditzakeen hizkuntzarekiko ideia edo erabilera modu propioak, HKak inplikatzeko duen “identitate eredu idealari” uko eginez), eta azkenik, hizkuntzaz kanpoko identitate elementuak ere aintzat hartzen ditu<sup>4</sup>. Izan ere, JKren teoriaren oinarritutako lanek behin eta berriz frogatu dute hizkuntza praktiken eta bestelako praktika sozialen arteko lotura, eta horretan datza, besteak beste, JKren teoriaren indar esplikatiboa (Eckert 2006).

Izan liteke, beraz, bertso-eskola Jarduera Komunitate bat? Wengerrek, JKren teoriaren sortzaileak (Wenger 2011) honela definitzen ditu JKk: “Communities of practice are groups of people who share a concern or a passion for something they do and learn how to do it better as they interact regularly” (Wenger 2011 : 1). Definizio zabal horretan oinarriturik, ez dirudi arazorik legokeenik BE JK gisa definitzeko. Baina, sakon dezagun gehixeago.

Autorearen arabera, komunitate bat JK gisa definitzeko honako hiru ezaugarriak izan behar ditu: komunitatearen baitako kideek elkarren arteko interakzioa edukitzea, praktika komun bat edukitzea, eta identitate bat definitzen duen interes eremu partekatua bat edukitzea (*Ibid.*, 1-2. ). Itxura batean esan liteke lehen bi ezaugarriak betetzen

dituela BEk: BEko kideek praktika komun bat dute, BEn bertan astero gauzatzen dutena, alde batetik, eta BEz kanpo BEko kideekin gauzatzen dutena bestetik (topaketak, saioak, asteburutako festa-giroko planak...). BE-kideek beraienganatu egiten dituzte jarduera horiek dakartzaten bizipen eta oroitzapenak. Horrez gain, jarduera horietan guztietan, kideen arteko interakzioa gertatzen da: BEn bertan, gazteek inprobisatu egiten dute, besteen bertsoak entzuten dituzte, bat-bateko bertsoegintzan trebatzeko ariketak burutu (nagusiki arrazoiketari, errimari edo memoriari lotuak), baina, BEko jarduna ez da performance tekniko soila, komunikazioan oinarritutako jarduna baizik: sorkuntza ariketa bakoitza komunikazio ekintza bat da, unean uneko eta tokian tokiko testuinguruak baldintzatua. Wengerrek aipatzen dituen lehen eta bigarren ezaugarriak betetzen ditu, beraz, BEk, baina hirugarrenari dagokionez, kontua ez da hain begibistakoa: BEko gazteek “identitate bat definitzen duen interes eremu partekatu bat” dutela baieztatu ahal izateak, analisi sakonagoa eskatzen du. Emaitzen eta eztabaiden atalean jardungo dugu, beraz, gai honetaz.

BE JK gisa aztertua izateko bete beharreko baldintzak betetzen baditu, taldearen baitan gizartearekiko mutazioak azaltzen direla ikusi ahal izango da, besteak beste, hizkuntza erabilerari dagokionez. Eckerten hitzak berrartuz, BE JK izanez gero, BEko jardunaren jiran eta kideen arteko elkarrekintzaren bidez azaleratuko dira zenbait “ways of doing things, ways of talking, beliefs, values, power relations - in short, practices” (Eckert 1992). Era berean, balio, sinesmen, zein ohitura horiek, eragina izango dute BE-kideen identitatearen eraikuntzan:

Individual identity is based in a multiplicity of memberships in different communities of practice - in the range of endeavors and practices that emerge from them, in the range of forms of participation that the individual enjoys in each community, and in the ways in which the individual comes to articulate these multiple memberships (Eckert 1992: 5).

Kontzeptu honek, aplikagarri izanez gero, ahalbidetuko lidake BEren baitan gertatzen diren zenbait prozesu ulertzea, aintzat hartuz, aldi berean, praktikak identitatearen eraikuntzan duen eragina, hizkuntza jardunaren eta gainerako jardun sozialen elkarreragina, eta identitatearen aldakortasuna eta konplexutasuna.

## **Identitate performatiboa eta hizkuntza(k)**

Izan ere, maiz hitz egiten dugu identitateaz, hizkuntza erabileraz hitz egiten dugunean, identitatea eta hizkuntzaren erabileraren arteko loturak begi bistakoa baitirudi. Baina, zertaz ari gara identitateaz ari

---

***Kontzeptzio diskurtsibo eta pragmatiko berriek hankaz gora jarri dute identitatearen inguruko ikerketen orain arteko ikuspegia: identitatea ez da aurrez emana zaigun ezer, egiten dugunaren emaitza baizik, identitatearen sorkuntzan kulturak duen pisua azpimarratuz.***

**Eguneroko bizia  
aldatuz joan  
ahala, interesak,  
motibazioak eta  
jarduerei ematen  
dizkiegun  
zentzuak aldatuz  
joan ahala, gure  
hizkuntza  
portaera ere  
aldatuz joango  
da, pertsonak,  
hiztun gisa ere,  
aldakorrak  
izanik.**

garenean? Gizarte zientzien alorrean sortutako ideia berriek, eta bereziki antropologia feministak paradigma aldaketa bat ekarri dute, eta aldaketa horrek eragin zuzena du soziolinguistikaren esparruan ere, bereziki antropologiaren alorrean eta metodologia kuantitatiboekin ari garenontzat (Butler 1990). Kontzepzio diskurtsibo eta pragmatiko berriek hankaz gora jarri dute identitatearen inguruko ikerketen orain arteko ikuspegia: identitatea ez da aurrez emana zaigun ezer, egiten dugunaren emaitza baizik, identitatearen sorkuntzan kulturak duen pisua azpimarratuz. Identitatea modu honetara ulertzeak, ildo berri bat zabaldu du euskal soziolinguistikari (Hernández 2007, Kasares 2013), hizkuntzarekiko loturan gertatzen diren fenomenoak, hizkuntzaren planotik haratago, modu konplexuagoan ulertuz eta aztertze bideak zabalduz: identitatearen poliedroaren alde bat baino gehiago baldin badago, zuzenean ala zeharka hizkuntzari lotua (funtsean, identitatearen alde guztiak el-karreraginean garatzen baitira), badira hizkuntzari zuzenean lotuta egon ez arren (soziolinguistika klasikoak lotura ulertzen duen moduan), hizkuntzaren erabileran eragiten duten identifikazio esparruak ere. Alegia, hiztunek euskaraz edo erdaraz egiten dutenean hizkuntzaz haratagoko ezaugarri ekonomiko-sozial-kulturalei loturiko identitate ezaugarriak adierazten ari direla uler liteke. Halaber, beraz, identitatearen ezaugarri ezberdin horiek aldatuz joan ahala, hizkuntz portaera ere aldatuz joan liteke (Pujolar 2001).

### **Identitate performatiboa eta gaztea(k)**

Denboran zehar ematen diren aldaketetan bada une bat, maiz aipatzen dena (mundu akademikoan eta ez akademikoan) aldaketa une nagusi gisa: nerabezaroa. Nerabezaroen -bizitzako beste garaietan egiten den bezala- ordura arteko identitate jabekuntzaren atal ugari berraztertzen da, beharbada, ordura arteko intentsitate altuenarekin. Prozesu horretan norbere buruarekiko nahiz inguruarekiko harremanak birdefinitzen dira. Hala, nerabeak identifikaziorako erreferente berriak bilatzen dituen neurrian, identitate berriak garatzen ditu.

“Prozesu horretan bi erreferente nagusi hartu ohi dituzte gaztetxoek: helduen mundua, alde batetik, eta, gazte kulturak, bestetik. Lehenengoarekiko sentimendu bikoitza agertzen dute: helduek araua ordezkatzeko duten neurrian, horien aurkako joera adieraziko dute gehienetan, arauak hauste horretan gazte izaera azaltzeko funtsezko bidea dute eta. Dena dela, horrek batera nagusiek gizarte botere eta prestigioa bereganatzen duten neurrian, eredu eta ispilu bilakatzen dira neska eta mutil gazteentzako. Bigarren kasuan gazteak berak dira eredu bilakatzen direnak beste gazteentzako.” (Hernandez 2005:121)

Erreferente gisa batzuk ala besteak indartu, hizkuntza batekin ala bestearekin identifikatuko gara gehiago. Eta eguneroko bizia aldatuz joan ahala, interesak, motibazioak eta jardueri ematen dizkiegun zentzuak aldatuz joan ahala, gure hizkuntza portaera ere aldatuz joango da, pertsonak, hiztun gisa ere, aldakorrak izanik. Gazteengan jarriko dut ikerketa honetan interes behinena, adin horretako identitate-erakuntza prozesuak behagarri izango zaizkidalakoan<sup>5</sup>.

### 3. BERTSO ESKOLA JARDUERA KOMUNITATE?

#### I Bertso-jarduera ardatz, komunitatea baldintza

The value of the notion communities of practice to Sociolinguistics and Linguistic Anthropology lies in the fact that it identifies a social grouping not in virtue of shared abstract characteristics (e.g. class, gender) or simple co-presence (e.g. neighborhood, workplace), but in virtue of shared practice. (Eckert 2006)

Bertso-eskolan bertso-jarduera da ardatz. Bat-bateko bertsogintzaren jiran sortzen eta garatzen da. BEko kide izatea jarduera hori besteekin batera garatzean datza. Praktika hori beste kideekin batera biziitzean, funtsean, BEn, bertsoaren jirako praktikak garatzen dira.

Bertsogintzarako teknikaz jabetzeko edo bertsogintzan trebatzeko berariazko ariketen bidez ala bertso-jardunaren beraren bidez, bertso-jarduneari trebatzen dira Bekideak, baina ez horretan soilik. BEko jarduneari, bat-bateko bertsogintza zentrala izanik, beharrezkoa da BEko kideek bi oinarritzko gaitasun garatzea (bertsoak sortzeko beharrezko dituzten gaitasun teknikoek gain): hitza hartzeko gaitasuna (kideen aurrean bat-batean inprobisatzera ausartzeko) eta entzuteko gaitasuna (beste inor bat-batean ari denean, eroso egingo zaion entzuteko jarrera bat garatzeko, aldi berean aktiboa eta enpatiazkoa). Bi gaitasun horien garapena berez gertatzen da kideen artean elkarrekiko konfiantza eta enpatia giro bat baldin badago, eta beraz, konfiantza eta enpatia giro hori sortzea aktiboki bilatzen da BEn.

Kideen arteko lotura, beraz, bertsotarako baldintza onak sortzeko aurrekari nagusia da. Baina, ez aurrekari soilik. Izan ere, bertso-jardunak berak ere bultzatzen du kideen arteko lotura hori. Baditu bertsogintzak, giroaren “trinkotzaile” diren hiru uztarketa, Albert Casalsek bere tesian (2009) azaltzen dituenak. Autoreak azaltzen duen moduan, gainerako arte-sorkuntza prozesuetan ohikoak diren hiru disoziazio zalantzan jartzen dira ahozko inprobisazioan, oro har, eta hiru disoziazio horiek zentzua galtzen dute BEko jarduneari ere.

---

***Bertso-eskolan bertso-jarduera da ardatz. Bat-bateko bertsogintzaren jiran sortzen eta garatzen da. BEko kide izatea jarduera hori besteekin batera garatzean datza. Praktika hori beste kideekin batera biziitzean, funtsean, BEn, bertsoaren jirako praktikak garatzen dira.***



**Sortzailea eta entzulea banatzen dituen horma, eta bertso-sorkuntzaren unean presente daudenen arteko batasun sentsazio bat sortu ohi da, prozesua kontzienteki bizi denean. Eta hirugarren disoziazio gisa proposatzen du Casalsek norbanakoaren eta komunitatearen arteko disoziazioa.**

Lehena *konposizioaren eta interpretazioaren arteko disoziazioa* da (bertsoaren bat-batekotasuna deitzen diogun hori, ahozko kantu inprobisatuaren ikerketa tradizioan “extemporary composed” izaera esaten zaiona). Bertsogintzan zentzua galtzen duen bigarren disoziazioari *sortzailearen eta publikoaren arteko disoziazioa* deitzen dio Casalsek: *performancearen* baitan dago publikoaren erantzuna, alde batetik, baina, publikoak bertso-sorkuntzan eragiteko duen gaitasuna ere presente dago, bertsolariaren sorkuntza momentuan, interlokuzio testuingurua bera baita sorkuntzarako lehengai potentzial nagusietako bat. Findu egiten da, hala, sortzailea eta entzulea banatzen dituen horma, eta bertso-sorkuntzaren unean presente daudenen arteko batasun sentsazio bat sortu ohi da, prozesua kontzienteki bizi denean. Eta hirugarren disoziazio gisa proposatzen du Casalsek *norbanakoaren eta komunitatearen arteko disoziazioa*. Banakakotasuna berezko ezaugarri du bertsogintzak (bertsogintza bertsoa sortzearen ekintza gisa ulertuta, ez bertsolaritzak ez inprobisazioak berak ez baitute banakakotasuna berezko). Baina, umorea edo eta hunkitzeko gaitasuna berez dira interlokuzio testuingurua behar dutenak. Komunitate baten baitan inprobisatzen da, publikoarekin elkarreraginean, eta baita bertso-kideekin (edo eta gai-jartzaileekin) elkarreraginean ere.

Hartzailearen eta igorlearen arteko lotura horretan garatzen da bertsotarako gaitasuna, baina, batez ere, lotura horretan oinarrituz sortzen eta indartzen dira bertso-jardunaren bitartez taldekideen arteko lotura eta konplizitatea.

Azkenean zergatik pasatzen dut ondo? Bueno, ba gustatzen zaidalako bertsoa, baina, joe, jendearekin... Ba hori, ba badaukazu konplizitate bat eta gero, hori, zure izaera antzekoak dira, ez, orduan, ba, identifikatua sentitzen zara berehala, eta... ba jendearekin kriston harremana. - Neska [U], 17 urte. Bernat Etxepare lizeoko BEko kidea (Baiona).

M.A.S. : Zer da giro hori, zergatik jendea heldu da gehio? Ze... zer da? Ze giro duzue? Biziki, fin, ez da, ez da, ez gira bertso-eskolako kideak, gira lagunak. — Neska [L], 17 Urte. Bernat Etxepare Lizeoko BEko kidea (Baiona).

## **Bertso-eskola taldearen eta norbanakoen identitateen garagune**

Casalsek bere tesian adierazten duenez, glosak -alegia, katalanezko ahozko inprobisazioak-, talde identitatea sortzeko gaitasuna du, alde betatik, eta norbanakoen identitatea eraldatzeko gaitasuna, bestetik: “la glosa, partint del seu caràcter lúdic i recolzada en una funcionalitat ineludible, s’ha mostrat com a generadora d’identitats grupals i de mo-

dificacions en les identitats individuals” (Casals, 2010 : 6). BEko kideen identitateari dagokionez, gazteen hitzetan nabarmena da JKaren baitan bizitakoak, kideen arteko elkarrekintzak, kode komunuen eraikuntzak eta elkartasunezko lotura afektiboek eragina dutela norbanakoen identitatearen eraikuntza prozesuan. Gazteek beraiek BEko kidetza erabiltzen dute neurri batean haien identitatea definitzeko:

Be, bertsolaritzari esker, ez dakit, nik uste dut ber... bai, bertso-eskolak, adibidez, ar... bertso-eskola arrosak<sup>6</sup> ukan duenez indarra, edo, ongi sentiarazi nau, eta orduan, ongi sentiarazte hortan ni naizena edo bertso-eskola... be... zinez bertso eskolan girelarik, edo, bertso-udalekutan edo bertsoari lotua den gauzetan, ni ni naiz, fin, ez dakit nola esplikatu. Ta kolegioan hori ez nintzen, fin, ez dakit nola esplikatu... Egoten nintzen, be, ez nuen... isilik, edo... ez nuen erraten... ez nintzen ni, fin, eta... Koleg... fin, lizeora joaitan, ta bertso-eskola ongi ateratzean eta ez dakit zer, askatzen zira ta sinesten duzu agian ez zirela bakarrik bertso-eskolan izan behar ziren bezalakoa. (...) nik uste dut bertsoak, hori dela... ni, ni izateko.- Neska [L], 17 urte. Bernat Etxepare lizeoko BEko kidea (Baiona).

Esan beharra dago, bertso-eskolen sorreratik bizirik dagoen intuizio bat dela taldearen indarrarena, alde batetik, eta bertsoaren inguruko gaitasunez gain, balioak, jarrerak zein giza-harremanetarako gaitasunak garatzeko gunea ere badela BE:

[BE] conveys the pedagogical notion for a place for the cultivation of values, attitudes, knowledge and skills needed in human development, while at the same time attempting to teach the importance of teamwork and to constitute a group of friends united in a leisure activity. The purpose, then, is to go beyond the level of imparting knowledge towards a fuller sense of education, underlying which are four central concepts: learning to know, learning to do, learning to coexist, and learning to be (Agirreazaldegi & Goikoetxea 2007).

Eckerten hitzetan, JK bateko partaide izateak munduan kokatzeko modu bat dakar berekin:

A community of practice engages people in mutual sense-making (...) about their orientation to other communities of practice and to the world around them more generally. (...) Participants in a community of practice collaborate in placing themselves as a group with respect to the world around them (Eckert 2006).

Gazteen beraien hitzetan aurki liteke, beraz, BE JK gisa aztertu litekeela baieztatzeko azken argudioa; ondoko berriemaileak “bi mundu” desberdin gisa irudikatzen ditu BE eta gainerako mundua:

---

**Esan beharra dago, bertso-eskolen sorreratik bizirik dagoen intuizio bat dela taldearen indarrarena, alde batetik, eta bertsoaren inguruko gaitasunez gain, balioak, jarrerak zein giza-harremanetarako gaitasunak garatzeko gunea ere badela BE.**



**BEko kideek  
astean ordu bete  
edo bi pasatzen  
dituzte, gutxi  
gora behera,  
BEn. Esan  
beharrik ez da,  
IEHko  
testuinguruan BE  
dela eskolaz  
kanpoko aisialdi  
eskaintza  
antolatuan hasi  
eta buka  
euskaraz gara  
litekeen jarduera  
bakarra ez bada,  
bakarrenetakoa  
(Coyos & Baxok  
2010).**

M.A.S. : Zer aldatzen da giro 'normaletik' bertso-eskolako girora? Dena. Bon, deia euskara, fin... Bai. Gehienak, bertso eskolan aritzen giren guziak gehienak gira euskaraz gehien mintzatzen girenak. Nik uste dut baietz. Ta... dena, fin... ateratzeko... dena desber... fin.... bi mundu desberdin dira mundu batean, fin... — Neska [U], 17 Urte. Bernat Etxepare Lizeoko BEko kidea (Baiona).

#### **4. BERTSO-ESKOLA: EUSKARAZKO JARDUNA, EUSKARAREN JIRAN**

**I**  
JKaren baitan taldean garatzen diren balore kode eta balore komun horiek, identitate sorrera eta garapen prozesuek, taldearen baitan mutazioak sortzea ahalbidetzen dute, izan gizartearekiko, eskolarekiko edo lagunarte zabalarekiko. Mutazio hauek ematen dira, besteak beste, hizkuntza erabileran: “The community of practice is thus a rich locus for the study of situated language use, of language change, and of the very process of conventionalization that underlies both” (Eckert 2006). Aski begibistakoa da BEko JKren ezaugarri bat taldekideen arteko hitzezko komunikazioa euskaraz gertatzea dela. Jarduna bera euskaraz garatzen da, eta horrek, jardueraren inguruko bizipenak euskararekiko bizipen ere izatea dakar. Bizipenak identitate eratzailerak izanik, ba ote du BEko JKak eraginik jarduerakideen hizkuntza erabileran?

#### **Bertso-eskola, Euskararen Berezko<sup>7</sup> Erabilgune (EBE)**

BEko kideek astean ordu bete edo bi pasatzen dituzte, gutxi gora behera, BEn. Esan beharrik ez da, IEHko testuinguruan BE dela eskolaz kanpoko aisialdi eskaintza antolatuan hasi eta buka euskaraz gara litekeen jarduera bakarra ez bada, bakarrenetakoa (Coyos & Baxok 2010). Baina BE denbora tarte horretan euskaraz hitz egin ahal izateko espazio bat baino gehiago da: bertan gazteek elkarrekiko harremanak euskaraz garatzen dituzte, euskaraz sortzen dituzte (bertan elkar ezagutuz gero), edo euskarara birmoldatzen dituzte (lehenago elkarren artean frantsesez eginez gero). Hala, euskara komunikazio hizkuntza nagusi (eta bakar) bihurtzen da BEn, eta BETik kanpo betetzen ez dituen hainbat funtzio betetzera iragaten da: BE, EBE argia da.

Espazio horretan, edozein gairi buruz inprobisatzen ohitzen dira gazteak, besteak beste, gazte kulturari dagozkion gaiak buruz. Izan ere, inprobisatze ekintza horren protagonistak (sortzaile zein entzuleak) gazteak beraiek diren neurrian, gaiak ere haien munduari erreferentzia egiten diotenak dira maiz<sup>8</sup>. Gazteek, beraz, euskaraz heltzen diete haien munduari erreferentzia egiten dieten gaiak. Horretara ohituta,

BEz kanpoko portaera linguistikoak arraroak lirateke BEn. Hala, BE ez da euskara hizkuntza nagusi den gune soila, euskarak komunikazio funtzio guztiak berreskuratuko lituzkeen espazio hutsa: BE barruan sozializazio arauak aldatzen dira (eskola edo familiako arauetik); horien artean, hizkuntza portaerari dagozkionak.

*M.A.S. : Arauak aldatzen dira, nunbait, bertso-eskolan. Bai. Bai. Nik orain, aspaldi ez dudala egiten esaldi oso bat frantsesez e... lagunekin ere ez, fin, salbu ez bada eremu bat nun frantsesa hitz egin behar dudan bortsaz. bai, ta bertso... ez, ez dut uste bertso eskolan, e... Ez. M.A.S. : Bitxia eginen zuen, ez? Bai biziki. Biziki-biziki-biziki — Neska [L], 17 urte. Bernat Etxepare lizeoko BEko kidea (Baiona).*

### **Bertso-eskolako motibazio izanarazlearen alternadore**

Bertsogintzak berezkoa du euskararen lanketa ere. Bertsoaren berezko ezaugarriek behartzen dute bat hizkuntza bihurritzera, zorroztera, moldatzera: errimatu beharrak, silaba kopuru jakin batera egokitu beharrak, esan nahi dugun hori era batera ezin bada beste era batera esaten saiatzera darama bertsolaria. Ahalegin horretan, hizkuntzaren beraren egiturarekin jolastera ohitzen da inprobisatzen duena. Bestalde, bertsolariak indar komunikatiboa lortzea du helburu: mezua ahal bezain modu adierazkorrean moldatzea. Ondorioz, bere diskurtsoa bizi, eraginkor eta gozagarri egingo duten gaitasunak menperatzea berebizikoa du. Hala, bertso-jardunean, bertsolariari lanabesa zorrozten zaio eta langaia malgutu, bidean eskuratuz sintaxia, lexiko, semantika zein pragmatika mailako ezagutzak, besteak beste.

Hizkuntza gaitasuna areagotzen du, beraz, bertsotan jarduteak. Eta jakinik gaitasuna badela erabileran eragiten duen faktorea, pentsatzekoa da zentzu horretan, hizkuntza menperatzeak on besterik ez duela egingo erabilerari dagokionez. Baina ez da ezagutzarena gazte hauen hizkuntza erabileran gehien eragiten duen faktorea. Gazte hauek, euskara menperatzen dute, eta gaitasun erlatibo handia dutela baieztatzen dute. Ez zaie ageri, ziurgabetasun linguistikoaren zantzurik. Haatik, ezagutzaz haratago, badira hizkuntza portaeran eragiten duten beste faktore batzuk, nagusiki, motibazio izanarazleari lotuak.

Ez dirudi, alta, lehen begiradan, gazte gehienentzat<sup>9</sup> euskararekiko motibazioa BEn sortzen denik. BE ez da, elkarrizketatuen hitzetan, motibazioaren sorrerarako pindar gisa ageri.

*M.A.S. : Eta uste duzu bertso-eskolan aritzeak kontzientzia gehitu dizula euskararen inguruan, edo, edo bazinun deia, eta... Nik banuen deia. Igual Aitorren kasuan, adibidez, e... Bai, be, aldatu dio, edo, ez dakit. Nik nire etxetik badut. Betidanik. - Mutila [K], 15 urte. Bernat Etxepare lizeoko BEko kidea (Baiona).*

**Bertsogintzak berezkoa du euskararen lanketa ere. Bertsoaren berezko ezaugarriek behartzen dute bat hizkuntza bihurritzera, zorroztera, moldatzera: errimatu beharrak, silaba kopuru jakin batera egokitu beharrak, esan nahi dugun hori era batera ezin bada beste era batera esaten saiatzera darama bertsolaria.**

**Iduri luke BEk  
alternadore  
baten gisara  
funtzionatzen  
duela. Auto baten  
alternadoreak  
energia  
elektrikoa  
sortzen du auto  
barruko  
elektrizitate  
beharrak  
asetzeko, baina  
energia sortzeko  
autoak martxan  
egon behar du.  
BEn antzeko  
zerbait gertatzen  
dela dirudi,  
euskararen  
erabilerari  
dagokionez:  
lehendik motorra  
martxan baldin  
badago, BEk  
hizkuntza  
portaeran  
eragingo du.**

Badirudi, ordea, bertso-eskolak hastapeneko motibazio hori elikatzeko gaitasuna duela, bereziki, motibaziorik erabilerarako pausua emateko garaian:

Nik uste dut bizian ukan dudala [kontzientzia]. Nik bai. Gero, suposatzen dut bertso-eskolak lagunduko duela hortan, mais... Etxean, bai, fin, nik uste dut etxean biziki-biziki... fin bai, ta aitatzik eta... kantuak eta dena, euskaraz, fin ez dakit... eta beti jakin dut e aita... 'aitite, Frankoren garaian egoiten zen asto-bellarriekin euskaraz mintzatzen zelako' [tonu altuan esaten du, amaren tonua karrikaturizatuz] fin, holakoak beti-beti-beti entzuten badituzu etxean bi urtetatik nik uste dut azkenean sartzen zaizula ta... agian ez kaleratzeko, baina, kontzientzia hori barnean ukan, gero ekintzak edo praktikan ezarri, agian bertso-eskolari esker, mais, barnean beti ukanen dut hori, etxetik. - Neska [L], 17 urte. Bernat Etxepare lizeoko BEko kidea (Baiona).

Ez dago argi, alta, zein den zuzen BEko kidearen eta euskararen erabileraren arteko lotura. BEko kideak euskararen erabileran duen balizko eragina neurtzea zailtzen duen elementu bat kontuan hartu behar da: BEko kideek, hizkuntza portaera aski irmoa dute euskararekiko, baina, ezin zaio hori kausa-ondorio efektuari besterik gabe egotzi. Korrelazio horretan sakondu behar da.

*M.A.S. : Uste duzu dela bertso-eskolan ari zirelako mintzatzen zirela euskaraz edo euskaraz gehio mintzatzen zirelako... [galdera eteten du] Biak, nere ustez. Alde batetik... Bat: alde batetik, nik uste dut bertsoa... euskaraz... euskaraz gehien ari girenok xekatu dugula, agian inkontzienteki edo, eremu bat nun euskaraz mintzatzen ahal ginen, eta euskara... eta euskaraz mintzatze horrek eragin digula, fin, bertsoan aritze horrek eragin digula euskaraz gehio mintzatzea. - Neska [L], 17 urte. Bernat Etxepare lizeoko BEko kidea (Baiona).*

Iduri luke BEk alternadore baten gisara funtzionatzen duela. Auto baten alternadoreak energia elektrikoa sortzen du auto barruko elektrizitate beharrak asetzeko, baina energia sortzeko autoak martxan egon behar du. BEn antzeko zerbait gertatzen dela dirudi, euskararen erabilerari dagokionez: lehendik motorra martxan baldin badago, BEk hizkuntza portaeran eragingo du.

*M.A.S. : Zer da; euskaraz asko hitz egiten dutenek bertsoarekiko zaletasuna dutela edo bertso-eskolan izateagatik ere euskaraz gehiago hitz egiten dutela... Biak. E, adibidez, hori, aurren eta joan den urtean, jende bastante animatu genuen bertso-eskolara etortzeko, ta horiek ba, noski, euskararekin daukaten harremana, ba, haundia da, eta izan behar da, baino bertso-eskolak ere ematen dizu, holako... hori, euskararekiko atxikimendu bat, ze azkenean, ber-*

tsolariekin zaudenean edo bertso-eskolan, beti euskeraz zaude. Orduan, kanpoan baldin badaukazu desoreka, erderarekiko, aldarazten dizu txipa. - Neska [U], 17 urte. Bernat Etxepare lizeoko BEko kidea (Baiona).

## 5. HIZKUNTZAZ KANPOKO IDENTITATE ELEMENTUEN ERAGINA

I  
BEko JKak baditu, hizkuntzari dagozkionez ezaugarri markatu batzuk (besteak beste, EBE izatea bera). Eta ikusi liteke ezaugarri horiek kideen identitatean zein portaeran eragina dutela. Baina JKak gazteen identitate eraikuntza prozesuan duen eragina ez da soilik hizkuntza erabileraren bidez azaleratzen. JKen teoriak azpimarratzen duenez, identitateari loturiko elementu ezberdinak elkarrekintzan garatzen dira JKetan, eta identitate elementu ezberdinak batera azaleratzen dira JKen baitan.

Eta behin eta berriz azaleratzen den elementu bat “gogoetaren”, “pentsamenduaren” eta “eztabaida sakonen” ideia da. Izan ere, BE, gozamenerako gune ez ezik, gogoeta gune ere bada. Jardunak berak definitzen du komunitatea hausnarketarako gune gisa: bertsotan ari garenean, etengabe ari gara diskurtsoak osatzen, sortzen eta jasotzen. Bertsolaritzaren corpus teorikoa eratzen eta transmititzen lan handia egin duten Jon Sarasuak, Andoni Egañak eta Joserra Gartziak *arrazoia*, *oratoria* eta *komunikazioa* jotzen dituzte bertsolariaren tresna nagusizat.

Bakarkako lanetan begi-bistakoa da diskurtsoa sortu beharrak berez dakarren gogoeta: gai bati erantzun behar zaio, norbera egoera jakin batean jarri edo iritzi bat eman. Zer esan eta nola esan hautatu behar da, eta ondoren hautu horri fidela izaten saiatu, bertsoaren muga formalak errespetatu. Are interesgarriagoa izan liteke, ordea, ofiziotako lanak dakarren gogoeta-dinamika. Artifizialki sortutako dialogo egoera batean, Dicharryk “deszentralizazio intelektual bikoitza” deitzen diona gertatzen da (“double décentration intellectuelle”, Dicharry 2013 : 65). Alde batetik bertsolariak bere ikuspuntu propioarekiko distantzia hartu behar du, pertsonaia batek edo egoera batek behartuta, eta bestetik, bertso-kidearen ikuspuntuarekiko ere kokatu behar du.

Ze... horrek pentsatzera eramaten gaitu, ideiak e, “ze esango genuke hor?” eta, orduan haus... hausna... hausnartzea tokatzen zaigu. Ta horrek, be, pentsatzen dugu, na... Ta besteak entzutean ere bai: “a, bai!”. - Mutila [K], 15 urte. Bernat Etxepare lizeoko BEko kidea (Baiona).

Distantzia hartze honek, funtsean, norberak bere ideiak eta diskurtsoak zalantzan jartzea dakar, eta zalantzan jartzeak maiz, diskurtsoaren doitzea edo diskurtso berriak sortzea dakar (Dicharry, 2013 :64).

---

**Bakarkako lanetan begi-bistakoa da diskurtsoa sortu beharrak berez dakarren gogoeta: gai bati erantzun behar zaio, norbera egoera jakin batean jarri edo iritzi bat eman. Zer esan eta nola esan hautatu behar da, eta ondoren hautu horri fidela izaten saiatu, bertsoaren muga formalak errespetatu. Are interesgarriagoa izan liteke, ordea, ofiziotako lanak dakarren gogoeta-dinamika. Artifizialki sortutako dialogo egoera batean, Dicharryk “deszentralizazio intelektual bikoitza” deitzen diona gertatzen da.**

**Eta badirudi  
ikuspegi kritikoa  
lantze horrek,  
JKren baitako  
kideei  
sentiarazten  
diela bestelako  
esparruetan izan  
ohi ez dituzten  
eztabaidak izaten  
dituztela BEn.  
“Intelektuala-  
goak”, jasoagoak,  
sakonagoak.  
Sentimendua  
dute “beste inon”  
ezin dutela kontu  
horietaz “maila”  
horretan hitz  
egin.**

Ez, ba gero, ba hori, lagunak, giroa, eta... Baita ere erreflexio putu bat, osea... bertso-eskolan beti... bertso-eskolak ekartzen dizu erreflexio bat. Igual beste gauzak ez dizutenak ekarriko. Ez dakit. Hai... hainbeste jartzen zaren beste pertsonen tokietan, ba azkenean, bueno, beri behintzat, pentsarazten... ni behintzat pentsarazten nau. - Neska [U], 17 urte. Bernat Etxepare lizeoko BEko kidea (Baiona).

Hala, bat bateko jarduna izan arren, eta sortutako diskurtso unitateak oso denbora murriztean sortuak izan arren, sortutako zein jasotako diskurtso unitateek zein unitate kateek arrastoa utz dezakete. Iritzia eman beharretik, iritzi bati erantzun beharretik, gai bat ikuspuntu ezberdinetatik landu beharretik, ikuspegi kritikoa ere lantzen dute BE-kideek.

Eta badirudi ikuspegi kritikoa lantze horrek, JKren baitako kideei sentiarazten diela bestelako esparruetan izan ohi ez dituzten eztabaidak izaten dituztela BEn. “Intelektualagoak”, jasoagoak, sakonagoak. Sentimendua dute “beste inon” ezin dutela kontu horietaz “maila” horretan hitz egin. “Jende normalarekin” ezinezkoa dela, edo ez dela berdina<sup>10</sup>.

Bertso-eskolakoetan eta sentimentuekin eta... gai... igual, nagusiagoak, eta gaiak jartzerakoan Odeik eta Aimarrek<sup>11</sup>, dira, eguneroko gizartea ea biziri buruz, quoi. Adibidez futbolekoekin hitz egiten dugu futbolaz, kirolaz, ta betiko gauzez. Ta... hori. Bertso-eskolan gehio landuagoa da edo, serioagoa da. - Mutila [K], 15 urte. Bernat Etxepare lizeoko BEko kidea (Baiona).

Eztabaida bat edukitzea bertsotan dabilen batekin, eta eztabaida... eztabaida bat edukitzea ez dabilen batekin, ez da berdina. - Neska [U], 17 urte. Bernat Etxepare lizeoko BEko kidea (Baiona).

Nik penstatzen dut bertsolaria... [irriak], bueno berts... bertsotan nabilen.. e... nabilelako edo nabilenetik, bueno gero, txikia nintzen lehen, baino, e... ekarri didala hori... pentsatzeko gogoia eta, igual hori, pues, gaztaroan aurrera joan ahala, ba... Nik ikusten dut nere penstaera eta pen... pentsatzeko gogo hori lotzen dut bertsoarekin. Zergatik, ez dakit, baino... bai, lotzen dut. Igual jendearengatik ere bai, ikusten duzulako jendea oso pentsatua, oso... eta askotan eztabaidak egiten dituzulako beraiekin igual beste batzuekin baino gehiago, edo eztabaida sakonagoak... igual horregatik lotzen dut. Ez dakit. - Neska [U], 17 urte. Bernat Etxepare lizeoko BEko kidea (Baiona).

Sentimendu honek, beraz, BEko JKarekiko kideetza indartzen du: gazteak elkarrekiko identifikatuak sentitzen dira, besteak beste, ezaugarri hau konpartitzen dutelako, eta elkarrentzat garrantzitsu bilakatzen dira, haien identitatearen osagaitzat duten gogoetarako joera elkarrekin garatzen dutelako, eta garatzen segi nahi dutelako, aberasgarri zaielakoan.

Bertsolaritzaren jardunaren bidez azaleratzen den identitate kolektibo hau, azken batean norbanakoen identitate ere badena, JK trinkotzen duen beste elementu bat da.

Asko ere, bertso-munduan ibilki direnak ba bai, e, aktualitatearekiko ere interesa badute, Euskal Herrian orokorki pasatzen diren gauzetaz etainteresatuak dira, eta orduan, gauza asko aipatzen ahal duzu bertso-munduan den jendearekin, gauz asko konparitzen dira, ez, ez bakarrik bertso-munduan eta, zera... Orokorki e... aktualitatea eta ez Euskal Herrikoa bakarrik, gainera, baita ere mundu mailakoa, erran nahi dut... ez dut esango... ez da... ez da "elite bat" edo zera, baina... ba... jende bat interesa duena gauza askorekiko, eta holako jendearekin beti giro bat bada. - Mutila [O], 18 urte. Bernat Etxepare lizeoko BEko kidea (Baiona).

Eta JKen teoriaren arabera, ez da elementu isolatu bat: jardueraren jiran azaleratzen diren gainerako identitate elementuekiko elkarreraginean garatzen den elementua da. Hala, ezin dira BEko JKko kideen gogoetarako joera eta euskara erabiltzeko joera erabat bereizi. Edo hobe esanda, elementu batek bestearengan eragingo du, bai maila kolektiboan eta baita maila indibidualean ere.

## 6. BERTSO ESKOLA ETA HIZKUNTZA IBILBIDEA

Elkarriztetatuen diskurtsoetan maiz ageri den beste elementu bat da *hizkuntza mudarena*, edo *hizkuntza portaeran izandako aldaketena*<sup>12</sup>. Gazteen *hizkuntza portaera ez da monolitikoa izan denboran zehar*, eta *emandako aldaketek identitate-erakuntza prozesuarekin duten lotura agerikoa da*. Pujolarren ikerketek (Pujolar 2008 ; Pujolar, González & Martínez 2010; Pujolar, & González 2013) adierazten dute, bizitza-egoera berri baten aurrean, gure ohiturak berregituratu beharrean aurkitzen garela, eta horien artean, baita *hizkuntza-ohiturak ere*. Gazte hauek bizi dituzten eskola-aldaketak<sup>13</sup> eta lagun sareen berregituratzeak *hizkuntza mudarako edo mantenurako bidegurutzeak dira*, eta badirudi BEk baduela eragina bide-hautaketa horretan.

*M.A.S. : Ea berriz itzuli zirelarik lizeoan euskaraz mintzatzera, edo, lasaitu zaitu nunbait... Askatasun bat, pixkat [galdera bukatu aurretik erantzuten du]. Fin, ez dakit. Sentitu naiz ni gehiago eta... orain bai, fin... ariko naiz e... Gero pertsona desberdinak ziren lizeoan ere, eta nik e... ia, fin, ukan dut aldaketa hori, liz... fin, kolegio-lizeo, fin lizeoa askoz nahiago ta... ez, kolegioa bikaina, e, baina... Lizeoa askoz e... pertsona desberdinak eta... pixkat euskararekiko ere beste atxikimendu bat lizeoan, kolegioan baino. Beharba handiago edo*

---

***Elkarriztetatuen diskurtsoetan maiz ageri den beste elementu bat da hizkuntza mudarena, edo hizkuntza portaeran izandako aldaketena. Gazteen hizkuntza portaera ez da monolitikoa izan denboran zehar, eta emandako aldaketek identitate-erakuntza prozesuarekin duten lotura agerikoa da.***



**BEko kide gisa.  
Identitate  
ezaugarri  
komunak dituzte  
eta garatzen  
dituzte  
bertsolaritzaren  
jardueraren  
inguruan. Eta  
horrek identitate  
hori azaleratzen  
duten kode  
komunak  
indartzea dakar:  
tartearen,  
euskararen  
erabilera.**

helduago girelako, baina... [...] M.A.S. : Eta zerk eragin du asumitzea bapatean edo ez bapatean, baina, asumitzea, bon, be voilà, euskaraz mintzatzen naiz? zerk lagundu du edo zerk egin du edo... Lagunak, beharba. Lagun desberdinak edo lagun... Edo zinez lagunak izanen edo diren gaur egun pertsonak. Beharba lagun, fin, lagundu ez, baina... Bultza, fin... Hortara beharba... Izan zu, eta hitz egin euskaraz eta ez e... bera delako frantsesez aritu. eta... Bai, lagunak. Lagunak eta lizeoak orokorrean, beharba. - Neska [O], 17 urte. Bernat Etxepare lizeoko BEko kidea (Baiona).

Zentzu horretan, BE kideak erreferentziazko lagunak bilakatuz gero, muda errazago gertatuko da. Eta euskaraz hitz egiteko ohitura dutenei, portaera hori mantentzeko plataforma gisa ere balio die BEk.

M.A.S. : *Eta bertso-eskolak, hortan?* Ni, bigarren hasieran ez nintzen hasi bertso-eskolan, eta gero, Uxuek, fin... bultzatu ninduen, "Oihana, bai, hasi-hasi" eta ducoup hasi nintzen, eta... Bai horrek ere, asko-asko-asko. Fin, nere, neregan asko eragin du horrek. Fin, hasi nintzen ikastolan bertso-eskolan, gero gelditu nuen, eta badakit kolegioan ukan nuela nahi hori, baina, ez dakit, fin, beldurra edo, berritz hasteko, eta lizeoan, ba, ale Oihana, joan eta ongi pasako da. Eta joan nintzen eta... - Neska [O], 17 urte. Bernat Etxepare lizeoko BEko kidea (Baiona).

Bai, lizeoan, bai. Hori, lizeoan, ya fin, ikusten nuen... ez da berdin ikusten duzularik ez dela nehor zu bezala, fin, orduan bai bortxatua zira, fin... zaila delako bakarrik joatea eta bakarrik egitea lehen urratsa. Bainan, badirelarik ya pertsona batzuk nun ikusten duzun, 'hauek nere onda berdinean dira' ba... zendako ez, quoi. - Neska [L], 17 urte. Bernat Etxepare lizeoko BEko kidea (Baiona).

BEko kide gisa, gainerako jardunkideekin garatzen duten harreman estuak, erreferentziazko bihurtzen ditu kideak elkarrekiko. Identitate ezaugarri komunak dituzte eta garatzen dituzte bertsolaritzaren jardueraren inguruan. Eta horrek identitate hori azaleratzen duten kode komunak indartzea dakar: tartearen, euskararen erabilera.

## 7. ZENBAIT ONDORIO

Maila kontzeptuarekin, lan honetan agerian geratu da BE bezalako esparru bat JK gisa azter daitekeela, eta JK gisa aztertzea baliaigarria dela. Kontzeptu honek ahalbidetzen du jarduera baten inguruan eratzeko eta garatzen den komunitate baten baitan gertatzen diren fenomeno konplexuak modu holistikoagoan aztertzea. Hala, hizkuntzari loturiko

fenomenoak bestelako fenomenoekiko elkarreraginean aztertzea ahalbidetzen du, eta nire ustez, horrek hizkuntza erabileraren gakoak modu errealagoan aztertzea garamatza: hain justu, giza jokabideen konplexutasuna bere horretan aztertzea, elementuak isolatu gabe, eta fenomenoak sinplifikatu gabe.

Horixe da, hain zuzen ere, BE JK gisa aztertuz atera dudan ondorioetako bat: behatutako gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreak nagusiki identitateari lotuak direla, modu konplexuan saretzen direla eta elkarreraginean daudela. BEn, zehazki, jarduerakideak kontziente dira JKaren baitan gizartearekiko ematen diren bi mutazio nagusiz: euskara erabiltzeko joeraz, eta gogoetarako joeraz. Bata eta bestea elkarreraginean garatzen dira, bai taldean eta bai norbanakoengan, eta bi fenomenoek elkarri eragiten diote. Gazteak JKko kide dira, besteak beste, elkarren artean euskaraz hitz egiten dutelako eta elkarrekin hausnartzen, gogoetazten eta eztabaidatzen dutelako. Elkarrekiko modu positiboan identifikatzen dira, eta identifikazio positibo horrek indartzen ditu bai gogoetarako joera eta baita euskararen erabilerarako joera ere. Hala, BE bezalako JK bateko partaide izatea izan liteke hizkuntza ibilbideko zenbait momentutan helduleku baliagarri, izan euskararen erabilerarako joera mantentzeko, zein hizkuntza nagusia erabiltzetik euskara erabiltzera iragateko. ●

## OHARRAK

1. Bigarren mailako iturriak gisa erabili ditugu, alde batetik literatura sozio-antropolin-guistikoa, marko teoriko-metodologikoa eratzeko, eta gaur egungo IEHko euskararen egoeraren diagnostiko xume bat egiteko. Bestetik Xenpelar Dokumentazio Zentroko Bertsolaritzaren Datu Basea eta Euskal Herriko Bertsozale Elkarteke Transmisio adarreko zein Bertsoari Lagunak elkarteke barne txostenak, IEHko bertsolaritzaren garapena eta gaur egungo egoera aztertuko.
2. Irizpide hauen bidez neutralizatu ditzaket hizkuntza erabileran eragin dezaketen norbanakoari loturiko zenbait faktore, hala nola, h<sup>1</sup> hizkuntza gaitasun erlatiboa edo hizkuntza ziurgabetasuna.
3. JK eta HK kontzeptuak alderatzeko ariketa honetarako, ez dugu HK kontzeptuaren definizio jakin bat hartuko aintzat. HK kontzeptuari definizio anitz eman zaizkio denboran zehar eta kontzeptu gatazkatsua da, berez (Peter L. Patrick 2009). Eztabaida horretan murgildu gabe, onartuko dugu HK kontzeptuaren balioa azterketa soziolinguistikorako oinarritzko unitate gisa, eta definizioak definizio, orokorki aitortuak zaizkion zenbait ezaugarri baliatuko ditugu JK kontzeptuarekiko alderaketarako.
4. Ikuspegi holistikoa hau, soziolinguistika klasikoan oinarritutako lanek inoiz aintzat hartu badute ere, periferiako gai gisa hartu izan da. JKaren teorian, aldiz, berebiziko garrantzia du, eta esplizituki jartzen ditu argitan bestela implizituki soilik azaleratuko lirakeen loturak. Hala, ikerketan zehar “hizkuntza identitatea” unitate gisa aztertu ordez, identitatearen gainerako elementu soziokulturalei lotutako sare gisa aztertzea ahalbidetuko liguke JKren kontzeptuak. Hala frogatu dute, besteak beste, gure testuinguruan aitzindari lanak egin dituzten Jone Miren Hernández eta Paula Kasaresek (Hernández 2007, Kasares 2013).
5. Bestetik, onartu behar dut gazteak ikertzera eraman nauen beste arrazoi bat: IEHn, familiaz gain euskararen transmisio eremu nagusia eskola izanik, 18 urte betetakoa euska-

---

***Maila kontzeptualean, lan honetan agerian geratu da BE bezalako esparru bat JK gisa azter daitekeela, eta JK gisa aztertzea baliagarria dela. Kontzeptu honek ahalbidetzen du jarduera baten inguruan eratzten eta garatzen den komunitate baten baitan gertatzen diren fenomeno konplexuak modu holistikagoan aztertzea. Hala, hizkuntzari loturiko fenomenoak bestelako fenomenoekiko elkarreraginean aztertzea ahalbidetzen du, eta nire ustez, horrek hizkuntza erabileraren gakoak modu errealagoan aztertzea garamatza.***

razko hezkuntza sistemak ez du jarraibiderik. 18 urte betetzen dituen gazteak, lan mundura edo aurreragoko ikasketetara egin beharko du jauzi, unibertsitate ikasketen kasuan, IEHTik kanpo ateraz maiz (izan Frantziara, izan, batzuen kasuan, HEHra). Gazte horiek probabilitate baxua izango dute euskarazko eremuekin topo egiteko (HEHra joan ezean). Hala, lizeo garaia da, IEHn euskaraz ikasten duten gazte taldeak behatzeko “azken aukera”.

6. “Bertso-eskola arrosa” deitzen diete kideek Bernat Etxepare lizeoko BEri.

7. “Berezko” hitzaren “espontaneo” adieran, eta ez “sortzetiko” edo “natural” adieran.

8. Hona Bernat Etxepare lizeoko BEN bina gazteri proposaturiko bi gai, 2014ko maiatzaren 5ean, Baionan: “Zu, X, hamabost urteko neska gaztea zara, eta lehen aldiz atera zara parrandara. Zorionez, Y, hemezortzi urteko zure ahizpa —eta festa-girora ohitua— zurekin atera da.”, “Zuek anai-arrebak zarete. Etxean maiz entzuten dituzue gurasoak eztabaidan. Azken aldian okerrera egin du egoerak. X, kezkatuta zaude, eta Y-rengana joan zara gaiaz hitz egiteko asmoz”.

9. Baliteke elkarrizketatuetako batentzat hala izatea (hain zuzen ere, etxean frantsesez egiten duenarentzat), baina ez da bere hitzetan argi gelditzen, beraz, ezin dut interpretazio itxirik proposatu.

10. Badirudi ikuspegi hau ez dela soilik IEHkoa, eta ezta oraingoa ere. 2013ko azaroaren 6an, Jexux Larrañagak bertsolari txapelketari buruzko bere tesia aurkezteko asmoz eman zuen Mintzolan (Villabonan) “Jolas sakona” hitzaldia. Bertan izan zirenen artean, Imanol Lazkano Azpeitiako bertsolari beteranoa, eta, hitzaldi-ondorengo hitz aspertuan hala kontatu zigun: Azpeitian, Landeta auzoan bazueta kuadrila bat, eta bertsolaritzaren munduan murgildu zenean, plazaz plazako jardunean, jende berria ezagutu ahala pixka bat albora utzi zuela lagunarte hura. Eta itzuli zelarik berriz, kuadrilako afari baten aitzakian, harritu egin zela. Berekiko pentsatzen omen zuen: “hauekin egoten nintzen ni?”. Ez zuela gaiztakeriaz pentsatu, baina, iruditu zitzaioala “su bajua baino zaharragoak” zirela; ez ziotela gai bati bi bueltatik gora ematen.

11. Odei Barroso eta Aimar Karrika, BEko irakasleak.

12. *Hizkuntza mudaren* kontzeptu hau Pujolarrek proposatu zuen hiztunen hizkuntza por-taeran ematen diren bihurtune esanguratsuak izendatzeko:

Because our argument relies fundamentally on life-history accounts, we have felt the need to coin a new term, linguistic ‘muda’ (pl. mudes, pron. [mud<sup>3</sup>z]), to name the specific biographical junctures where individuals enact significant changes in their linguistic repertoire. We use this neologism to express changes in language use that are important for people’s selfpresentations in everyday-life, but whose implications for ethnic ascription are open to negotiation and contestation (Pujolar & González 2013).

13. Lehen mailatik Ziburuko Piarres Larzabal kolegiara, eta kolegiotik Baionako Bernat Etxepare lizeora.

## BIBLIOGRAFIA

Agirreazaldegi, A., Goikoetxea, A. (2007). “Verse schools”, in *Oral Tradition*, vol. 22, number 2, 65-68.

Bertsularien Lagunak Elkartea (2014). “Ohizko Biltzar Nagusia. Txosten osatua”. 2014ko martxoaren lehenean, Senpereko “Larraldean” aurkeztua. Argitaratugabea.

Butler, J. (1990). “Variaciones sobre sexo y género: Beauvoir, Wittig y Foucault”. *Teoría Feminista y Teoría Crítica*. Valencia: Edicions Alfons El Magnànim.

Casals, A. (2004). *Etnicitat i cançó tradicional catalana a l’escola*. Treball de recerca inèdit, Departament d’Antropologia Social i Cultural de la Universitat Autònoma de Barcelona.

- Casals, A. (2009). *La cançó amb text improvisat: disseny i experimentació d'una proposta interdisciplinària per a Primària*. Tesi doctoral, Departament de Didàctica de l'Expressió Musical, Plàstica i Corporal de la Universitat Autònoma de Barcelona.  
(<http://www.tdx.cat/TDX-0324110-114328>)
- Casals, A. [coord.] (2010). *Corrandescola: proposta didàctica per treballar la glosa a l'escola*. Cerdanyola del Vallès: ICE-UAB.
- Coyos, J. B. (2007). *Écart entre connaissance et usage d'une langue minoritaire: modèles théoriques et cas de la langue basque*. In: A. Viaut (ed.), *Variable territoriale et promotion des langues minoritaires* (411-427). Pessac : Maison des Sciences de l'Homme d'Aquitaine.
- Coyos, J. B. (2009). *Écart entre connaissance et usage d'une langue minoritaire: essai de typologie des facteurs. Le cas de la langue basque*. In : *Politique linguistique et enseignement des Langues de France Toulouse 26-27 mai 2005 (Colloque)*. ([http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/docs/00/05/45/04/PDF/Connaissance\\_Usage\\_Typologie.pdf](http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/docs/00/05/45/04/PDF/Connaissance_Usage_Typologie.pdf))
- Coyos, J. B., & Baxok, E. (2010). *Gazteak, euskara eta aisialdia Ipar Euskal Herrian*. Bilbo : Euskaltzaindia - Works and Proceedings of the Royal Academy of the Basque Language.
- Coyos, J. B. (2012). "L'enseignement de la langue basque en France. Essai d'évaluation de son impact dans la société". In : L-J. Dorais, A. El Mountassir (ed.), *L'enseignement des langues vernaculaires: défis linguistiques, méthodologiques et socio-économiques* (17-44). Paris : Editions L'Harmattan.
- Cooper, R. L. (1989). *Language Planning and Social Change*. Cambridge : Cambridge University Press.
- Davies, B. (2005). "Communities of practice: Legitimacy not choice". *Journal of Sociolinguistics*, 9(4), 557-581.
- Dicharry, E. (2013). *L'écologie de l'éducation: Un anthropologue à l'école du bertsoarisme en Pays basque*. Paris : Editions L'Harmattan.
- Eckert, P., McConnell-Ginet, S. (1992). *Think practically and look locally: Language and gender as community-based practice*. "Annual review of anthropology", 461-490.
- Eckert, P., & McConnell-Ginet, S. (1995). "Constructing meaning, constructing selves". *Gender articulated: Language and the socially constructed self*, 469-508.
- Eckert, P. (2001). "Linguistic Variation As Social Practice: The Linguistic Construction of Identity" in Belten High, volume 27 of *Language in Society*.
- Eckert, P. (2006). "Communities of practice". *Encyclopedia of language and linguistics*, 2, 683-685.

- Euskararen Erakunde Publikoa (2010). "Évolution de l'enseignement en langue basque dans les écoles du Pays Basque (avril 2010), ([http://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Enseignement/Garapena/Bilan\\_mise\\_en\\_oeuvre\\_volet\\_1\\_avril\\_2010.pdf](http://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Enseignement/Garapena/Bilan_mise_en_oeuvre_volet_1_avril_2010.pdf))
- Euskararen Erakunde Publikoa (2013). Chiffres détaillés de la rentrée 2013-2014 (document fait public en conférence de presse le 15 octobre 2013).(<http://www.mintzaira.fr/fr/actualite/article/bilan-de-la-rentree-2013-2014.html>)
- Eusko Jaurlaritzza (2013). *Vè Enquête Sociolinguistique 2011*, Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Fishman, J. A. (1991/1997). *Reversing Language Shift. Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon, Philadelphia, Adelaide: Multilingual Matters.
- Gartzia, J., Sarasua, J. eta Egaña, A. (2001). "Bat bateko bertsolaritza". *Gakoak eta azterbideak*. Andoain: Bertsolari liburuak.
- Gartzia, J. (2008). *Jendaurrean hizlari*. Alberdania.
- Hernández García, J. M. (2007). *Euskara, comunidad e identidad: elementos de transmisión, elementos de transgresión*. Ministerio de Educación, Cultura y Deporte. Área de Cultura.
- Insee (2013). *Recensement de la population. Populations légales en vigueur à compter du 1er janvier 2014*. Pyrenees-Atlantiques. (<http://www.insee.fr/fr/ppp/bases-de-donnees/recensement/populations-legales/pages2013/pdf/dep64.pdf>)
- Institut Culturel Basque (2001). *Regard sur l'avenir 1999: Les adolescents du Pays Basque et la langue basque. Situation en Pays Basque Nord*. Uztaritze : Institut Culturel Basque.
- Institut Culturel Basque (2014). *Agenda de la culture basque 2013. Synthèse des données saisies dans l'agenda du site portail de l'Institut culturel basque en 2013 Pays Basque Nord*. Uztaritze : Institut Culturel Basque. (<http://files.eke.org/liburutegia/agenda-2013-fr.pdf>)
- Kasares, P. (2010). "20 urteko nafar euskaldun hori. Nafarroako euskararen egoera zenbait gazte euskaldunen bizipenetan". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 76, 101-123.
- Kasares, P. (2013). *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Doktore tesi argitaragabea. Iruñea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Lave, J., & Wenger, E. (1991). *Situated learning: Legitimate peripheral participation*. Cambridge university press.
- Martínez De Luna, I. (2001). "Euskal Herriko gaztetxoek hizkuntza egoera aztertzeke eredu orokorraren proposamena". *BAT Soziolin-*

- guistika aldizkaria 40, 47-66. (<http://www.soziolinguistika.org/node/892>)
- Martínez De Luna, I. (2004). "Euskararen erabilera egokirako gizarte baldintzak". In zenbaiten artean, *Egokitasuna hizkuntzaren erabileran*. VIII. Jardunaldiak (11.-38. or). Bilbao: Mendebalde Euskal Kultur Alkartea.
- Martínez De Luna, I. (2012). "Egoeraren gaineko gogoetak eta norabide proposamenak". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 84, 121-137.
- Massip Bonet, M. (Ed.) (2008). *Llengua i identitat* (Vol. 44). Edicions Universitat Barcelona.
- Moseley, C. (ed.). 2010. *Atlas of the World's Languages in Danger*, 3rd edn. Paris : UNESCO Publishing. (<http://www.mintzaira.fr/fr/actualite/article/bilan-de-la-rentree-2013-2014.html>)
- Patrick, P. L. (2009). "The speech community". In Coupland, Nikolas eta Jaworsky, Adam (ed.) *Sociolinguistics Critical Concepts in Linguistics* (IV. alea): *Theoretical perspectives in sociolinguistics*: 245-267. New York: Routledge.
- Pujolar, J. (2001) *Gender, heteroglossia and power: A sociolinguistic study of youth culture*. Berlin and New York: Mouton de Gruyter.
- Pujolar, J. (2008). "Els joves, les llengües i les identitats". *Noves SL Revista de Sociolingüística*. (<http://www6.gencat.net/llengcat/noves/hm08hivern/docs/pujolar.pdf>)
- Pujolar, J., González, I., and Martínez, R. (2010). "Les mudes lingüístiques dels joves catalans [The linguistic 'mudes' of Catalan youth] ". *Llengua i ús: revista tècnica de política lingüística* 48: 65-75.
- Pujolar, J., & González, I. (2013). "Linguistic 'mudes' and the de-ethnization of language choice in Catalonia". *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 16 (2), 138-152.
- Quivy, R. & Campenhoudt, L.V. (1995/1997). *Manual de recerca en Ciències Socials*. Barcelona: Herder.
- Sánchez Carrión, J.M. (1987). *Un futuro para nuestro pasado. Claves para la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas*, Lizarra.
- Sarasua, J. (2003). *Bertsolaritzaren gizarte eta kultur ezaugarriak*. Ahozotasuna Munduan jardunaldietako txostena.
- Siadeco (1995). *Bertsozetan buruzko azterketa*. " Jakin ", Vol. 87, 11-76.
- Soziolinguistika Klusterra (2002). *Euskal Herriko Kale Erabileraren IV Neurketa*.
- Soziolinguistika Klusterra, Topagunea eta Urtxintxa (2009). *Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa proiektua*. *Emaitzen txostena*. (<http://www.soziolinguistika.org/files/GazteenHizkuntzaErabileranEragitenDutenFaktoreenAzterketaI.pdf>)



- Soziolinguistika Klusterra (2011). *Gazteen hizkuntza erabileran kokatu eta bertan esku-hartzeko gida. Erabileraren GPSa*. Soziolinguistika Klusterra.
- Soziolinguistika Klusterra & Eusko Jaurlaritz (2012). *ARRUE proiektua. Ebaluazio diagnostikoa 2011 : Ikasleen hizkuntza erabileraren datuak. Emaidza nagusien txostena*. ([http://www.soziolinguistika.org/files/ED2011\\_Emaidza\\_nagusien\\_txostena.pdf](http://www.soziolinguistika.org/files/ED2011_Emaidza_nagusien_txostena.pdf))
- Urkizu, P. ed. (1990). *Euskal literaturaz*, Piarres Lafitte. Klasikoen Gordailua. Euskal Editoreen Elkarte. <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LafitteLiteraturaz.htm>
- Wenger, E. (2011). *Communities of practice: A brief introduction*. (<https://scholarsbank.uoregon.edu/xmlui/bitstream/handle/1794/11736/A%20brief%20introduction%20to%20CoP.pdf?sequence=1>)
- Nicole Westmarland (2001). *The Quantitative/Qualitative Debate and Feminist Research: A Subjective View of Objectivity*.
- Zarraga, A. Et Al. (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia eta Soziolinguistika Klusterra, atal metodologikoa.
- Zumeta, O. A. (2002). "Erabileraren IV kale neurketa. Emaidzen azterketa". *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (43), 37-50.